



PRENTSA OHARRA

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK ZEHAPEN ESPEDIENTEA IREKI DIE BILBOKO PORTUKO BI ENPRESA MERKATURATZAILERI

Lehiaren Euskal Agintaritzaren Ikerketa Zuzendaritzak prozedura zigortzailea abiarazi du Bilboko Portuan jarduten duten bi merkataritza-enpresaren eta garraiolari-elkarte baten aurka, Lehia Defendatzeko Legearen kontrako jarduerak egin dituztelakoan.

Lehiaren Euskal Agintaritzak jakin duenez, hainbat konpainiatako ontziei merkantzien garraio horizontaleko zerbitzuak ukatu dizkiete ustez.

Garraio-zerbitzu hori emateko prest zeuden beste konpainia batzuen kamioien aurka egindako erasoen berri ere jaso da. Guardia Zibila ikertzen ari da aipatutako eraso horiek.

Bilbo, 2014ko uztailak 31

Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) Ikerketa Zuzendaritzak Lehia Defendatzeko Legeak galarazitako ustezko jardueren berri izan du. Hain zuzen ere, CETROTRANSBIZ eta TPSCOOP enpresa merkaturatzaileek zein BILBOKO PORTUKO GARRAIOLARI AUTONOMOEN ELKARTEAK (ATAP) egin dituzte ustez galarazitako jarduerok.

Hala, Noatum Container Terminal Bilbao SA enpresak kontratatutako garraio horizontalari ez diote zerbitzurik eman. (Bilboko portuko edukiontzi-terminala). Jarduera etetea Maersk Lines ontziak garraiatutako kargari mugatuko litzaioke.



Teknikoki garraio horizontala esaten zaio ontziaren albotik salgaiak uzten diren biltegietaraino eta alderantziz egindakoari.

Bilboko portuan espedientea abiarazi den bi enpresek egiten dute aipatutako garraioa gehienbat; halere, beste batzuek unean-unean ematen dute zerbitzu hori eta haien kamioien aurkako sabotajeak izan dira.

Kasu honetan Lehiaren Legea urratu dela pentsatzeko arrazoizko zantzuak daude dakigunaren arabera. Hori dela eta, zehazpen-prozedura abiarazi da ATAP elkartearen eta CECOTRANSBIZ eta TPSCOOP enpresen kontra, ustezko jarrera debekatuengatik. Aldeak jakinaren gainean daude.

Espediente hori abiarazteak ez du aurretik juzgatzen ikerketaren amaierako emaitza. Orain 18 hilabeteko epea egongo da gehienez espedientearen izapideak egiteko eta Lehiaren Euskal Kontseiluak ebazpena eman dezan.